

# Amatxo




SOPEÑAREN  
IRUIAK

MARGO-EDERDUN  
IRUIAK

C. BUSQUETS

Nerea Ugerza  
606445402



Antxiña, urrutiko erri batean, Errege-erregiñak seme  
bat euki eben. Izar zati bat lez oso maitagarria zan.  
Jai aundiak egin ebezan jauregian:  
Umetxo ori seme nagusia salako  
aundi egiten zanean errege izan bear eban.



Bateatu ta egun batzuk barru,  
norbaitek ostu egin eban kumatik.  
Erregeak bere mandatariei deitu  
eta umetxoaren billa bialdu ebazan.  
Sari on bat jarri eban aurkitzen ebanarentzat,  
baiña iñok ez eban aurkitu.



Erregearen arerioa zan zorgin oker  
batek ostu eban, eta baso erdian itxi.  
Iñok ez ebalá egundo be  
aurkituko uste eban.  
—Goserik ilgo da edo otsoak jango dabe.  
Esan eban bere artean.

Eta aidean, su ta ke,  
eskutatu zan  
zorgin maltzurra.

Baña baso aretan eta andik  
ur alargun on bat bizi zan  
bere alabatxo Garbiñegaz.  
Ikusi eban neskatxoak  
umetxo maitagarria  
eta poz-pozik etxera  
eroan eban.



-Begira, ama;  
jostailu bizi bat aurkitu dot.  
¿Neuretzat izango da ezta?

Umetxoagaz geratu ziran.  
Eta Garbiñe laztangarriak  
bere semetzat artu eban.

Berbetan ikasi ebanean,  
Amatxo deitzen erakutsi eutsan.



Garbiñen ama gaixotu zan eta  
gau baten zerura eraon eben  
aingeru on batzuk.

Garbiñek negar asko egin eban.  
Baña neskato ona zanez esan eban:  
—«Jangoikoak lagunduko dausku».



Garbiñek gogor lan egiten eban:  
Egurra batu, baratza ta auntzak zaindu,  
eta onela bizi ziran biak.  
Bein baten egur billa urten eben.  
Eta esan eutsan Garbiñek umetxoari:  
—Nik zotzak batzen dituan bitartean  
zaindu zuk auntzak  
iges egin ez dagien.



Baña auntz batek iges egin eutsan,  
eta mutikotxo bere billa joan zan.

Eta basoan eiztan ebillan  
gizon bat aurkitu eban.

Asko bildurtu zan zaldia ikustean  
eta deika asi zan:

-¡Amatxo! ¡Amatxo!



Umetxoaren deadarrak entzutean  
arin etorri zan Garbiñe.

Eiztaria, erregea zan eta zalditik jatsirik:

—Nebea dozu ume maitagarri ori?

—itandu eutsan.

—Ez, Jauna.

Nire semetxo da.

Neuk aurkitu neban

baso erdian da.



Erregeak umeari begiratu eta  
bere kautan iñoan:  
«Ez ete da berau nire semetxo!»

—Zelan jantzita egoan

aurkitu zenduanean?

—Etorri nire txabolara

eta an ikusiko dozu.



Erregeak umetxoaren oialak ezagutu ebazan  
eta laztan bero bat emonaz esan eutsan:

—Jauregira eroan bear zaitut  
zeure ama ezagutu dagizun.  
Negar ta negar dago bera!




Mutikoak negarrez erantzun eutsan:

—Nik neure amatxogaz bizi nai dot.

Erregeak esan eutsan:—¡Bai ba!

Biok etorriko zarie neguaz.







Jarri ebazan zaldi ganean  
eta poz-pozik jauregirako bidea artu eben.


Erregiñak pozaren pozez  
semetxoa laztandu ta laztandu ziarduan.  
Gero Garbiñeri be laztan bat emon  
eta esan eutsan:

—Nire semetxoaren amatxo izan zaralako  
emetik aurrera zeure ama izango nozu.

Errege-erregiñak  
Garbiñe alabatzat artu  
eta printzesa egin eben.



Errege-semea aundi egin zanean  
errege on bat izan zan eta  
ez eban egundo aztu bere Amatxo.  
Azkenean beragaz ezkondu zan.



© Editorial Ramón Sopena, S. A.  
Depósito Legal: B. 36.298 - 1969  
Gráficas Ramón Sopena, S. A.  
Provenza, 93 - Barcelona - 1969 (11.986)  
Impreso en España - Printed in Spain

# SORTA ONETAKO IPUIAK

Lapurren Azken Txarra

Tximu dantzariak

Bi konejutxoak

Atxo gaxoa

Simon lelo

Asto-narru

Amatxo



Nekanen gora-berak

Iturriko maitagarria

Mitxitxu ta Mitxita

Katu Borrokalaria